



# I.E.S. PIO BAROJA BHI

## IRUN

### **IKASTEKO AHOLKU BATZU**

- Egoera fisikoa zaindu: 8 ordu gutxienez lo egin, ariketa fisikoa edota gustukoa duzun aktibitateari eskaini iezaiozu denbora.
- Lan baldintzak zaindu: argia, mahaia, aulkia, postura, materiala, ...
- Hasi baino lehen, mahai gainean behar duzun materiala jar ezazu.
- Ikas ezazu ordu berean, toki berean.
- Atsedenaldiak 5etik 15 minutura iraungo dute, hasieran motzagoak eta bukaeran luzeagoak.
- Ikasterakoan aktibo izateak zera suposatzen du: galderak egitea, liburuak kontsultatzea, azpimarratzea, eskemak, hiztegia erabiltzea,..
- Ikasteko tekniken bidez ikastea eragingarriagoa da, hau da, esforzu gutxiagoarekin etekin handiagoa lortzen da.
- Orokorrean, ikasterakoan hainbat pausu jarraitu behar dira: lehendabizi irakurketa orokorra, bigarren irakurketa ulerkorra, azpimarraketa, eskema, laburpena, errepaso.
- Ikasketetan aurreratzeko irakurmena erabakikorra eta oinarritzko gaitasuna da. Bilatu zure gustoko irakurketak.
- Ikasterakoan, gogoia edukitzeaz gain, helburuak finkatzea komeni da.
- Lorpenak askotan akatsetatik abiatuz eraikitzen dira. Ikasterakoan, akatsak ulermenera heltzeko beste urrats bat direla pentsatu behar da. Akatsak ez badira onartzen ez da ikasten iraunkortasunez jokatzeko.
- Arazoei erantzuna ematen ikastea, irtenbideetan oinarrituz, eraginkorragoa da eta motibazioa handitzen du.
- Guraso eta seme-alaben arteko erlazioa orientazio eta laguntzazkoa denean, ikasketaren kalitatea indartzen du.

**IKASLE GARAIAN LAN METODOLOGIA EGOKIA IZATEAK  
BIZITZA PERTSONAL ETA PROFESIONALEAN ERAGINA  
ONURAGARRIA DU**